

ZIRTAK  
Angel Erro

IDAZLEA

## On queer bertsolaristics

**O**rain lau urte, orduko Bertsolari Txapelketa Nagusiaren harira, gauzatxo bat idatzi nuen, Volgako Batelariak e-noizkarian argitaratu zena. Euskal kulturgintzan kementsu lan egiten duen pertsona batek esan edo abisatu zidanez, artikululu horrek ez zizkidan adiskide gehiegirik ekarri. Horregatik seguruenik, adin batetik aurrera lagunen kopurua minimo jasangarri-  
ra murrizteko edozein aitzakia ona izan daitekeelako, inguruko askok animatu naute oraingo Txapelketa ere aintzat hartu eta beste artikululu bat egiteko. Buruan ibili arren, ez dut hala egin.

Hala ere, berriki izan da Nafarroako Txapelketa eta gauza batek atentzioa deitu dit. Hona, Iñigo Astizen hitzetan: “Kartzelako lanak heltzean askatu ziren bertsolariak. (...) Gai irekia jarri zien gai jartzaileak: ‘Zalantzak izan dituzun arren, erabaki bat hartu duzu jada. Amak ez onartzea sortzen dizu orain kezka gehien’. [Xabier] Legarreta izan zen aurrenekoa bakarkako hiru bertsolak botatzen, eta baita amari homosexuala zela esaten ere. Ildo beretik joko zuten gero Lazkoz, Zelaieta eta Sotok ere”.

Gaia, egia da, oso irekia da. Baina, horregatik berregatik, bertsolaritzak gaitegian nozitu duen eraldaketaren aztarna ematen du argien. Beste garai batean, odola herriaren alde emateko hautua litzateke amak (ez epelkeriatik, ama



DAÑI BLANCO



Gero eta argiago dakusat

fenomenu jakin honek

Euskal Herriko gay, lesbiana

eta transgeneroaren alde egin,

egiten eta eginen duela


beste edozerk baino gehiago



batengan ulergarria izan daitekeen beldurragatik baizik) semeari onartu nahiko ez liokeen. Baina oraingoan, zortzi bertsolarietatik lauk “armairutiko ateraldia” aukeratu dute.

Zalantza sortzen zait hau nola interpretatu beharko genukeen (ez baitut irudimenari haize eman nahi, pro domo mea, dauden baino maribertsolari gehiago zenbatuz); alde batetik, izan daiteke azkenaldiko bertsolaritzak gai sozialekiko kontuetarako erakutsi duen sentsibilitatea, akaso, horrenbeste buruhauste ekar dezakeen nazio gai totemikoari ihes egiteko modua izan daitekeena (adiskide bat eta biok, bertsoen *Pásalo* sindrome berri honen kontura, txantxetan ibili ginen irudikatuz ahalik eta bertso-gai sozialena: “Julio, emakumezko saharai maltreatatu bat zara, Euskal Herrira etorkin moduan lanera etorria, langabea, eta zure alabari Nafarroako Gobernuak ukatu egin dio euskaraz ikasteko eskubidea. Hiruna bertso edo labana”. *Labanaaaaa!*); baina, bestetik, izan daiteke bertsolaritzak daukan berezko queerjoera bategatik.

Azken ideia honek, hain zuzen, saihestu zidan iazko Txapelketa Nagusiaz ezer idaztea, neurri batean, eta min ematen dit aitortu behar izateak, bertsolaritzarekin adiskidetu nauelako. Gero eta argiago dakusat fenomeno jakin honek Euskal Herriko gay, lesbiana eta transgeneroaren alde egin, egiten eta eginen duela beste edozerk baino gehiago. Bertsolariak, oholtzan, ez du generorik eta askotan binaka tratatzen dute harremanez, rola gehiegi zehaztu gabe (gai jartzaileak ez badie zehazten, esaterako) bietako nor den mutikoa eta nor neska, ala biak mutikoak diren ala biak neskak. Iturriaga eta Mendiluze ari daitetzeke bien seme batez, demagun, berehala argitu behar izan gabe “neskarena zeinek egiten duen”. Bertso-saioaren ikuslearengan genero eta mugarik gabeko sexualitate ideal bat –bertsoak dirauen bitartean, Gainsbourgen kanta hartan bezala– landuta, gizarte irekiago, bidekoago batera eramango gaituena, eta askatasunera ere bai bide batez. ■



irudia:

Antton Olaviaga